

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2011
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Emaitzen txostena interpretatzeko argibideak. ED11

SARRERA

2009-2010 ikasturtean sortu zenetik, Ebaluazio diagnostikoaren xedea hezkuntza komunitateak ikasleen lorpenen eta ikasketen aldetik dituen erronkez eta ahalmenez gogoeta egiteko giltzarri bilakatzea izan da, gogoeta horretan oinarriturik, estrategiak sortu edo birformulatu emaitzak hobetzeko asmoz.

Euskal Erkidego Autonomoan Ebaluazio diagnostikoaren garapena, antolamendua eta gauzapena arautzen dituen 2008ko abenduaren 2ko Aginduaren 8. artikuluan xedatzen den bezala, eta Hezkuntza Sailburuordetzak errendimendu probak egiteko jarraibideak finkatzen dituzten ondorengo erabakien arabera, ikastetxeek, Ebaluazio diagnostikorako koordinazio taldearen bidez, ikasleek Ebaluazio diagnostikoko probetan lortzen dituzten emaitzak aztertu eta ondoren dagokion balorazioa egin behar dituzte.

Halaber, 2010eko abenduaren 27ko Erabakiak, 9. artikuluan, xedatzen du zuzendaritza taldeek ikastetxeko emaitzak, ebaluazioan parte hartu duten ikastaldeetakoak eta ikasle bakoitzak lortutako emaitzak zenbait txostenetan eskuratuko dituztela. 2009ko eta

2010eko ebaluazioen ostean gertatu zen bezala, ikastetxeek txosten horiek www.ediagnostikoak.net zerbitzarian lortu ahal izango dituzue.

Dokumentu honetan oinarritzko informazioa eskaintzen da. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko Ikuskaritzak eta Laguntza Zerbitzuek informazio osagarria helaraziko zaizue. Informazio-agiri honek osatzen ditu joan diren urtekoak eta bertan ED11ren nobedade batzuk aurkezten ditugu.

Azken finean, Ebaluazio diagnostikotik eratorritako informazio osoaren helburua hausnarketa eta hobekuntza prozesuak sustatzea da; horrela, ikastetxeotan kanpoko datuek lagunduta erabakiak har ditzazuen eta hezkuntzan esku hartzea ikasleen beharren

arabera egokitzeko eta aberasteko.

Txosten honen bidez EAEko Ebaluazio diagnostikoaren hiru urteko zikloa ixten dugu. 2011-2012 ikasturtea batez ere ikastetxeetako hobekuntza planak sendotzen erabiliko da. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak egutegi berri hori erabaki zuen, ikastetxeetako zuzendaritzek Ebaluazio diagnostikoari buruzko 2011ko galdera-sortari emandako erantzunak aztertu ondoren. Gehienek adierazi zuten nahiago zutela ikasturte honetan ematea emaitzak analizatzean eta hobekuntza planaren arrakasta mailari buruz gogoeta egitean baita ere barnean ebaluatzean orain arte kanpoko Ebaluazio diagnostikoaren bidez ebaluatu ez diren oinarritzko kompetentzietako dimentsio batzuk.

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA ikastetxeen hobekuntzarako balio duen ebaluazio prozesua da; Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasle guztiek oinarritzko kompetentziak noraino garatu dituzten neurtzen du. Ebaluazioa proba eta testuinguruko galdera-sorta ezberdinek osatzen dute. Proba eta galdera-sortak berdinak dira ikasle guztientzat eta irizpide estandarizatuekin ezartzen dira diru publikoaz finantzaturako ikastetxe guztietan.

Ebaluazio honek nahiko informazio objektiboa eskaintzen dio ikastetxe bakoitzari bere egoerari buruz. Informazio hori irakasleei, ikasleen familiei eta oro har hezkuntza sistema osoari helarazten zaie. Informazio horrek, ikastetxe barneko datuekin osaturik, hobekuntza-prozesuak abian jartzeko aukera eskaintzen du.

1. Zeintzuk izan dira 2011ko Ebaluazio diagnostikoaren nobedade nagusiak?

ED11n ikasleen parte hartzea pixka bat igo da, ED10arekin konparatuta.

Lehen Hezk. 4. maila	DBHko 2. maila
19.287 ikasle (+ %1,3)	18.306 ikasle (+ %1,7)

Bestalde, aldaketei dagokienez, lehenengoa izan da ebaluatu den kompetentzia aldakorra: *Hizkuntza-komunikazioa ingelesez*. Kompetentzia hori ebaluatzeko *Hizkuntza-komunikazioa euskaraz eta gaztelaniaz* ebaluatzeko erabiltzen dugun egitura antzekoa jarraitu dugu.

KONPETENTZIAK		LH 4	DBH 2
Hizkuntza-komunikazioa	Euskara	65 minutu	80 minutu
	Gaztelania	65 minutu	80 minutu
	Ingelesa	65 minutu	80 minutu
Matematikarako konpet.		45 minutu	55 minutu

Bigarrena, galdera-sorten (ikasleena eta ikastetxeko zuzendaritzarena) aplikazioa izan da, oro har *on line*, weben bidez, egin delako.

Horrela egiteak ahalegin handia eskatu die ikastetxeei (Lehen Hezkuntzako %93 eta DBHko %97 weben bidez erantzun dute) eta ISEI-IVEIri. Agerikoak dira ingurumen-eraginaren murrizketa eta diruaren aurrezkia (632.640 paper orri gutxiago erabili ziren, ebaluazio osoan erabili ziren %15 gutxiago gutxi gorabehera).

Hirugarren aldaketa entzungaien hobekuntza dugu; halaber, probak aplikatzerakoan gertatutako intzidentzien kopurua murriztu egin dira.

Laugarren aldaketa, hirugarren urtea izateak emaitzak izan duten bilakaera aztertzea ahalbidetzen du, oraindik epe laburra bada ere. Konparazio hori aurkeztera txostenaren 6. atala dedikatzen dugu.



2. 2009, 2010 eta 2011ko probetako emaitzak konparagarriak dira?

2009ko, 2010eko eta 2011ko probak galdera ezberdinek osatzen dituzten arren, konparazioak egin ahal izango dira, hiru probetan **metrika bereko eskalak erabili baitira**. Horri esker, bi ebaluazioen arteko “zubia” egin daiteke.

Luzetarako datu hori interes handikoa izango da ikastetxeentzako, emaitzen epe ertainerako bilakaera ezagutu ahal izango baitute eta, gainera, emaitzak mantentzen diren ala faktore jakin batzuek eragiten dieten jakin ahal izango baitute (ikasle multzo hobetua edo txarragoa irakasmaita batean, izandako hobekuntza prozesuak...).

3. *Nolako emaitzak hartzen dira kontuan ikastaldeko eta ikastetxe batezbestekoak kalkulatzeko?*

Ikastetxe eta ikastalde bakoitzeko emaitzen batez bestekoak egiteko proban parte hartu duten ikasle guztien emaitzak hartzen dira kontuan, hurrengo kasu hauetan izan ezik:

- Norberaren curriculum egokitzapen esanguratsua duten ikasleak, ebaluazio prozesu orokorrean parte hartu ezin dutenak.
- Probak egiten diren momentuan euskal hezkuntza sisteman eskolaturik urtebete baino gutxiago zeramaten ikasleak eta, gainera, proba ezberdinen hizkuntza ezagutzen ez bazuten.

4. *Zein da gutxieneko ikasle kopurua ikastetxe bateko emaitzak onargarriak izan daitezkeen?*

Horri dagokionez, **bi egoera** izan daitezke:

- Taldeko ikasleak **hiru baino gutxiago** direnean, ikastetxeak ez du jasotzen ikastalde horri buruzko txostenik, baina familiek banakako txostena jasotzen dute.

- Taldeko ikasle kopurua **lautik seira bitartekoa** denean, ikastetxeak taldeari buruzko txostena jasotzen du, baina ohar batez markaturik, talde horretako emaitzak ez direla fidagarriak eta egonkorak adierazteko, ikasle jakin bakar baten emaitzak oso pisu handia baitu taldeko batez bestekoan. Horrelako ikastaldeetako emaitzak ezin dira konparatu ikastetxe horretako edo beste ikastetxe batzuetako ikastaldeetako emaitzekin.

5. *Zenbat kompetentzia-maila finkatu dira?*

Ebaluazio diagnostikoaren aurreko urteetan bezala, emaitzak **hiru kompetentzia-mailatan** banaturik aurkezten dira: **hasierakoa, erdi-maila eta maila aurreratua**. Maila bakoitza ikasleei maila horretan aurkezten zaizkien egoerei irtenbidea emateko behar dituzten ezagupenek, trebetasunek eta ahalmenek definitzen dute. Ikasle bat maila jakin batean dagoenean, maila horretako trebetasunetan eta beheragoko mailletakoetan gai dela esan daiteke. **Maila horietako bakoitzak** ikasleak zer egiten dakien deskribatzen du, eta **probetako puntuazio-tarteei loturik dago**.

Hiru kompetentzia-maila ezarri ditugu, proba bakoitza osatzen duten item kopuruak ez baitu uzten kompetentzia-maila gehiagorik bereizten.



6. *Badago oinarrizko kompetentzia bat gaindituta dagoela adierazten duen gutxieneko mailarik?*

Ez. Oso garrantzitsua da ebaluazio diagnostikoaren xedea ez nahastea eta honako irizpide hauek argi edukitzea:

- **Ebaluazio diagnostikoa ez da bukaerako ebaluazio bat, eta ez du inolaz ere ordezkatzeko irakasleek egiten duten curriculum-ebaluazioa.** Helburua, beraz, ez da “gutxiegi”, “nahikoa” eta antzeko noten erreferentzia bat ematea, hori ikastetxearen eta irakasleen betebeharra baita.
- **Xedea ahalik eta mailarik altuenera heltzea izan behar da beti.** Kompetentzia baten garapena, zentzu hertsian, ez da inoiz amaitzen. Ikastetxeak ahalegindu behar dira ikasleak oinarrizko kompetentzien ahalik eta garapen mailarik altuenera hel daitezen, eta horixe izan beharko luke ikastetxe guztien helburua.
- **Ebaluazio diagnostikoa kompetentzia ezberdinen oinarrizko aspektuak ebaluatzen ditu,** eta, beraz, ez du neurtzen ikastetxe batek ikasleei irakasten dien guztia, ezta ikasleek ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuan ikasi duten guztia ere. Seguruenik, ikastetxeek askoz aspektu

eta eduki gehiago lantzen dituzte oinarrizko kompetentzien ebaluazio bati dagozkionak baino.

- **Emaitzak ezin dira zuzenean konparatu ikastetxeko emaitzekin** (“gutxiegi”, “nahikoa” edo promozionatzen duten ikasleen ehunekoak...). Ez litzateke bidezkoa izango ebaluazio diagnostikoko emaitzak irakasleen kalifikazioekin konparatzea, ikasle batek arlo jakin bat gainditzeko irakasleek askoz aspektu gehiago izaten baitituzte kontuan ebaluazio diagnostikoan (kanpokoak, arkatz eta paperekoak, une jakin batean egiten dena) neur daitezkeenak baino.


7. *Oinarrizko kompetentziarako emaitzak zuzenean konpara daitezke?*

Ez dira zuzenki konparatu behar. Probak diseinatzeko irizpide komunak erabili diren arren, **kompetentzia bakoitzak bere ezaugarri bereziak ditu eta kompetentzia bakoitzerako finkatu diren kompetentzia-mailak ezberdinak dira.** Azkenik, oso garrantzitsua da kontuan izatea kompetentzia bakoitzean ezarritako ebaketa-puntuak desberdinak direla; izan ere, proba bakoitzaren ezaugarrien eta ikasleen errendimenduaren arabera dira.

8. *Dimentsioen arabera emaitzak balio berekoak dira kompetentzia guztietan?*

Ez. Aurreko ikasturteetako Ikastetxeko txostenean gertatzen zen bezala, *Hizkuntza-komunikaziorako* bi kompetentzien kasuan (*euskaraz eta gaztelaniaz*), ikastetxeko eta ikastaldeko emaitza orokorraz gain, ebaluatu diren hiru dimentsioetan lortutakoak ere aurkezten dira: entzumena, irakurmena eta idazmena; izan ere, behar adina item dago abilezia bakoitza modu isolatuan neurtu ahal izateko. Egoera bera ematen da ED11ko kompetentzia aldakorra izan den *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren* kasuan.

Hala ere, *Matematikarako kompetentziaren* kasuan, emaitza orokorrak dimentsioen arabera ere azaltzen diren arren, haien balioa txikiagoa da. Izan ere, haietako bakoitzean sartutako item kopurua ez da behar adinako dimentsio bakoitzaren batez besteko puntuazioaren fidagarritasuna bermatzeko. Emaitza horiek **joeraren adierazle gisa soilik hartu behar dira** eta ikastetxean hausnarketa egiten laguntzeko soilik eskaintzen dira.



9. Zein trebetasun-mota ebaluatzen dira hizkuntzetan?

Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako hiru hizkuntzetan trebetasun komunak ebaluatzen dira: alde batetik entzumena eta irakurmena eta, bestetik, idazmena. Entzumena eta irakurmena ebaluatzeko item itxiak eta erdi-irekiak erabiltzen dira. Ikasleek irakurri behar dituzten testuak mota desberdinetakoak dira eta hizkuntza erabilera-eremu anitzekoak dira: gizarte hedabideetakoak, akademikoak, literaturakoak eta pertsona arteko harremanetakoak. Idazmena ebaluatzeko ikasleek proban bertan idatzi dituzten testuak izaten dira kontuan.

10. Hizkuntza-maila bera eskatzen da euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzietako probetan?

Bai, bi probetan hurrengo elementu hauek berdinak direlako:

- Curriculumaren erreferentzia berdinak, oinarritzko hezkuntzaren Dekretutik ateratakoak.

- Konpetentziaren garapen-esparru komuna; bertan bai LHko 4. mailan bai DBHko 2. mailan bi hizkuntzetarako berdinak diren dimentsioak, azpi-kompetentziak eta maila-adierazleak zehazten dira.
- Probak prestatzeko prozesu berdina; une batzuetan probak prestatu dituzten bi taldeak elkarrekin aritu dira lanean.
- Probak prestatzeko, egitura eta ezaugarrien aldetik, irizpide berdinak erabili dira.
- Zuzentzeko irizpide berdinak.

Hau da, oinarri berdinak eta sorburu bera dituzten bi probari buruz ari gara. Hala ere, kontuan izan behar dugu, behin probak prestatu eta egin ondoren, beren funtzionamendua desberdina izan daitekeela. Hori beti gertatzen da bi probetako edukiak ehuneko ehunean berberak ez direnean, eta berdin gertatuko litzateke beste edozein konpetentzia bi proba ezberdinekin ebaluatuko bagenu, probak prestatzeko erabilitako irizpideak eta jarraitutako prozedurak berdinak izan arren.



11. Nola ebaluatzen da idazmena?

Ikasleek testu bat idatzi behar zuten, komunikazio egoera ezagun batean kokatuta: lagun bati gutuna, eskolako egunkarirako berri bat, kontakizun bat ipuin lehiaketa batean aurkezteko, posta elektronikoko bat bidali... Testuen gutxieneko luzera aldatzen da Ikasleen mailaren arabera: Lehen Hezkuntzako 4. mailan 60 hitz eta DBHko 2. mailan 100 hitz. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren kasuan 30-40 eta 60-70 ziren, hurrenez hurren.

Zuzenketarako irizpideak eskema beretik abiatzen dira hiru hizkuntzetan eta testu-motaren eta zailtasunaren arabera aplikatzen dira. Ebaluatzen diren alderdiak honakoak dira:

- Komunikazio-egoerari egokitzea eta testuaren helburua lortzea,
- testuko koherentzia eta kohesioa,
- lexikoa, gramatika eta ortografia.

KONPETENTZIAK	LH 4	DBH 2
Gutxieneko hitz kopurua Idazmenean		
Euskara	60	100
Gaztelania	60	100
Ingelesa	30-40	60-70

12. Zein matematika trebetasun ebaluatzen dira?

Matematikarako konpetentzian, matematika-arrazoinamenduak egiten, matematika-argudioak ulertzen eta matematika-hizkuntzan komunikatzen laguntzen duten trebetasunak eta jarrerak ebaluatzen dira; eta horiekin batera, baita ere tresna lagungarrien erabilera, eta matematika-ezaguerak beste ezaguera batzuekin lotzea, bizitzako egoera konplexu guztiei aurre egin ahal izateko.

Trebetasun horiek lau multzo edo dimentsio zabaletan taldekatuta daude: Kopurua; Espazio eta forma; Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna; eta Problemen ebazpena.

Ikasleek ebatzi behar dituzten item-problemek egitura berdina dute, eta egoera berari buruzko hainbat galdera lotzea ahalbidetzen dute. Item-problema horietan eguneroko bizitzako alderdi garrantzitsuak proposatzen dira; horiek, ikasleak azterketa eta ebazpena egiteko aktibatzen dituen estrategiak, eta erabiltzen dituen abileziak, baliabideak eta jarrerak ebaluatzea ahalbidetzen dute.

13. Zein motatako txostenak aurkezten dira ebaluazioaren ondorioz?

Hiru mota ezberdinetako txostenak daude:

- **Ikaslearen txostena:** ikasle bakoitzak ebaluatutako konpetentzia bakoitzean lortu duen errendimendua adierazten du. Informazio hau ikastetxeak helaraziko die familiei.
- **Ikastetxeko txostena:** datu orokorrak eta taldekakoak zehazten ditu eta testuinguruko aldagai ezberdinekin duten korrelazioa (adibidez, indize sozio-ekonomikoa eta kulturala edo geruzak). Halaber, ezaugarri berdintsuko ikastetxeetako emaitzekiko konparazioa ere eskaintzen da.
- **Erkidegoko txosten orokorra:** Euskal Autonomia Erkidegoan konpetentzietan izandako datu orokorrak adierazten ditu, zenbait aldagaietako korrelazioarekin batera.

14. Zeintzuk dira 2011ko ikastetxeko txostenaren ezaugarriak?

Txosten zabala da –60 orrialde ingurukoa–, ikastetxeko batez besteko emaitzak eta ebaluazioan parte hartu duen ikastalde bakoitzekoak jasotzen dituen. Ebaluatutako oinarrizko konpetentzia bakoitzean lortutako emaitza orokorrez gain, emaitza horiek beste ebaluazio batzuetan eragin nabaria izan duten aldagai ezberdinekin duten korrelazioa ere azaltzen da.

Ikastetxeko txostena egiteko oinarrizko hiru irizpide hartu dira kontuan:

- Informazio behar bezain baliagarria eta garrantzitsua** eskaintzea, ikastetxeei kanpoko datuetan oinarriturik beren hezkuntza-egoera baloratzen laguntzeko.
- Benetan konparagarriak diren hezkuntza-errealitateen arteko konparazio datuak** eskaintzea. Beste konparazio batzuek neutroak diruditen arren, ez dituzte kontuan izaten ikastetxe bakoitzaren funtsezko ezaugarriak (adibidez, ikasleen maila sozio-ekonomikoa eta kulturala, irakasteredua, hezkuntza sarea), eta, beraz, alde batera utzi dira.
- Ikastetxeko emaitzen bilakaera eskaintzea**, 2011ko ebaluazioko emaitzak 2009ko eta 2010eko ebaluaziokoekin konparatzen baitira.



15. Ikastetxearen txostenean, zein emaitza mota eskaintzen dira?

Emitzei buruzko informazio guztia **zazpi atal** hauetan aurkezten da:

- a) Ikastetxeko eta ikastaldeetako batez besteko emaitzak ebaluatutako oinarritzko kompetentzia bakoitzean.
- b) Ikasleen ehunekoetako banaketa kompetentzia-mailen arabera.
- c) Konparazio-datuak ikastetxearen maila sozioekonomikoa eta kulturalaren arabera (ISEK).
- d) Emaitzak geruzen arabera (hezkuntza sarea + irakasteredua).
- e) Ikastetxean lortutako emaitzaren eta maila sozio-ekonomikoaren arabera espero zitekeen emaitzaren arteko erlazioa.
- f) Emitzen bilakaera erreferentziatzen ikastetxeko 2009ko, 2010eko eta 2011ko batez besteko puntuazioak harturik.
- g) Ikasleen emaitzen banaketa ebaluatutako ikastalde bakoitzean.



16. Emaitzez gain, zein beste datu gehiago ematen dira 2011ko Ikastetxearen txostenean?

Txostenaren hasierako orrialdeetan bi informazio-mota eskaintzen dira, parte hartu duten ikastetxeen ezaugarriak adierazten dituztela:

- a) alde batetik, aplikazioarekin lotzen diren datu batzuk (ebaluatutako ikastaldeen eta ikasleen kopurua), eta, horiekin batera, ikasle etorkinen ehunekoa eta adin-egokitasunean dauden ikasleak;
- b) beste alde batetik, hizkuntzei buruzko datu batzuk: ebaluatutako irakasmailan euskara, gaztelania edo beste hizkuntza bat familia-hizkuntzatzen duten ikasleen kopurua; ikasleek *Matematikarako kompetentzian* erantzuteko erabili duten hizkuntza (hori ikastetxe bakoitzak erabaki zuen). Bukatzeko, *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioarekin* lotutako beste informazio batzuk aurkezten dira.

Nolanahi ere, ikastetxeari dagozkion datuekin batera, Euskadiko batez besteko ehunekoak ere agertzen dira.

17. Zein informazio zehatz aurkezten dira Ingelesezko hizkuntza-komunikazioari buruz 2011ko Ikastetxearen txostenean?

Bi informazio-mota aurkitu ahal dira:

- a) Ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen duen ikasleen ehunekoa. Datu hori ikasleek testuinguruko galdera-sortari emandako erantzunetatik dator.
- b) Ingeles arloak duen pisua ikastetxearen curriculum antolamenduan:
 - Astean Ingeles arloko ordu-kopurua: Lehen Hezkuntzako ikastetxeen kasuan etapako ziklo bakoitzari dagokion batez bestekoa eskaintzen da. DBHkoen kasuan, aldiz, DBHko lehen zikloko batez bestekoa.
 - Astean ingelesez irakatsitako beste arlo batzuen ordu-kopurua.

Kasu guztietan, ikastetxearen berriazko datuaren alboa, Euskadiko batez besteko ehunekoa ikus daiteke.

	Ehunekoa ikastetxean		Ehunekoa Euskadin	
	Ingeles arloko ordu-kopurua astean	Ingelesez irakatsitako ordu-kopurua astean	Ingeles arloko ordu-kopurua astean	Ingelesez irakatsitako ordu-kopurua astean
2011	c....c....c	c....a....a	null	null

18. Nola zuzentzen dira probetako galderak?

Aukera anitzeko galdera itxien erantzunak automatikoki zuzentzen dira, informatika programa baten bidez. Era ezberdinetako galdera irekien erantzunak ikastetxez kanpoko pertsonak zuzentzen dituzte. Pertsona horiek horretarako bereziki kontratatzen dira lehiaketa publiko baten bidez eta berariazko prestakuntza dute. Zuzenketa itsua egiten dute, hots, anonimoa, informatika programa baten bidez eta beren lanari buruzko isilpekotasuna gorde behar dute. Prozesu osoa ISEI-IVEIko teknikariek ikuskatzen dute.

19. Zergatik ez da zenbakizko puntuaziorik ematen?

Arrazoi batzuegatik:

a) **Rankingak edo sailkapenak egiteko arriskua ahalik eta gehien murrizteagatik.** Horrelako sailkapenak egitea espresuki debekaturik dago oinarriko hezkuntzaren Dekretuan eta Ebaluazio diagnostikoaren Aginduan, eta oso kezka handia da ikastetxeentzako. Hartara, zenbakizko daturik eskaini ezean, ikastetxeen zerrendak emaitzen arabera egiteko aukera ia

desagertzen da edo gutxienez hein handi batean oztopatzen da.

b) **Nota akademiko batekin identifikatzea ezinezko egiteagatik.** Autonomia Erkidego batzuetan arazo larriak sortzen ari dira konpetentzia-mailak 1etik 10erako puntuazio "bihurtu" direlako. Nota akademikoak ikastetxearen eta irakasleen betebeharra eta erantzukizuna da, eta ebaluazio diagnostiko bateko emaitzekin konparatzea ez da bidezkoa. Nolabait, behar ez diren arazo artifizialak sortzea litzateke.

c) Benetan jakin nahi dena ez delako datu zehatz bat, ikastetxearen edo ebaluatutako ikastaldearen egoera baizik. **Puntuazio tarte bat eskaintzea estatistikoki zuzenagoa eta egokiagoa da** ebaluazio diagnostiko batean. Puntuazio tarte bat eskaintzen dugunean tankera honetako ebaluazioetan beti egoten den errorea onartzen ari gara, eta puntuazioak inoiz ez direla zehatzak izaten aitortzen ari gara. Gainera, ikasle, ikastalde eta ikastetxe



bakoitzari buruzko informazio zehatzagoa eskaintzen dugu, konpetentzian garatze-prozesuaren barruan zein egoeratan dagoen deskribatzen baitugu.

20. Nola kalkulatzen da ISEK indizea eta zergatik egiten da horrela?

ISEK indizea kalkulatzeko erabiltzen den informazioa ikasleek galdera-sortan emandako erantzunetatik dator. Indizean aspektu desberdinak sartzen dira: familiaren lanbide maila, familiaren ikasketa mailarik altuena eta aurreko esperientziak oso garrantzitsutzat jo dituen ondasun material eta kultural batzuk edukitzea (liburu kopurua etxean, egunkariak eta prentsa espezializatua irakurtzea, ordenagailua eta Internetarako sarbidea izatea).

Banakako datuetatik ikastetxeko ikasleen batez bestekoa kalkulatzen da. Balio horren batez bestekoa 0an zentratu da –Autonomia Erkidegoko batez bestekoa– eta 1eko desbideratze tipikoa du. Biztanleria osoa lau mailatan banatu da (baxua, ertain baxua, ertain

altua eta altua) eta mailetako bakoitzean ikastetxeen % 25 kokatzen da, ISEK indize altuago edo baxuagoaren arabera. Lau kompetentzia-mailek erreferentzia bezala ikasle kopurua hartu beharrean ikastetxea hartzen dutenez, ISEK maila bakoitzean dauden ikasleen kopurua desberdina da, ondorengo adibide honetan ikus daitekeenez:

Kontuan izan behar da **konparazio-balioak direla, ez absolutuak**, etapa bakoitzean ebaluatu den lagineko ikasleekikoa. Horrek bi ondorio ekar ditzake:

- Bi hezkuntza-etapak ebaluatutik dituen ikastetxe bat ISEK maila ezberdin batean egon daiteke etapa bakoitzean, datuak ebaluatutako ikastaldeetatik datozelako eta ez ikastetxeko ikasle guztiengandik.

- Gerta liteke, baita ere, ikastetxe bateko ISEK maila eta 2009ko Ebaluazio Diagnostikoan izan zuen ISEK maila desberdinak izatea, 2010ean ebaluatutako ikasleen ISEK maila aldatu delako, ikastetxe barruan edo Autonomia Erkidego osoan.

21. Zer dira lortutako emaitza eta ikastetxeko ISEK indizearen arabera espero zitekeen emaitza?

Lortutako emaitza ikastetxeak oinarrizko kompetentzietan lortu duen emaitza da eta Txostenaren lehenengo atalean azaltzen da. Espero zitekeen emaitza, berriz, ikastetxeak bere ikasleen ezaugarri sozio-ekonomiko eta kulturalak kontuan izanik ustez lortu beharko lukeen emaitza da.

Errendimenduaren eta indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren arteko harremana (ISEK) oro har positiboa izaten da: zenbat eta ISEK indize altuagoa, emaitza hobek izaten dira. Hala ere, **harreman hori ez da beti automatikoa, lortutako emaitzei beste faktore eta aldagai batzuek ere eragiten baitiete.** Aldagai horiek mota askotarikoak dira –didaktikoak, antolamenduzkoak, familiekiko harremanen aldetikoak...– eta nolabaiteko harremana dute –handiagoa edo txikiagoa– ikastetxeak beren ikasleen jatorrizko egoera gainditzeko eta hobetzeko egindako lanarekin. Hori da zenbait ikerlanetan ikastetxearen “*balio erantsia*” deitu ohi zaiona.

